

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

KANPEZUKO UDALA

Behin betiko onartzea 2016ko ekitaldiko aurrekontu orokorra

Ez da inolako erreklamaziorik edo oharrik aurkeztu toki sektore publikoko 2016ko aurrekontu orokorrari hasierako onarpena ematen dion erabakiaren aurka. Beraz, otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko toki erakundeen aurrekontuei buruzkoak, xedatu-takoarekin bat etorri, aurrekontu hori behin betiko onartu da. Hona hemen kapituluka laburtuta:

Gastuen egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA EUROTAN
I. Langile gastuak	323.175,00
II. Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	507.796,00
III. Finantza gastuak	500,00
IV. Transferentzia arruntak	185.282,00
V. Kreditu orokorra	49.191,58
VI. Inbertsio errealak	704.000,00
VII. Kapital transferentziak	677,00
VIII. Finantza-aktiboak	0,00
IX. Finantza-pasiboak	0,00
Gastuak, guztira	1.770.621,58

Diru sarrerren egoera

KAPITULUA	ZENBATEKOA EUROTAN
I. Zuzeneko zergak	282.000,00
II. Zeharkako zergak	10.000,00
III. Tasak eta bestelako diru sarrerak	34.660,00
IV. Transferentzia arruntak	728.261,58
V. Ondare sarrerak	16.700,00
VI. Inbertsio errealak besterentzea	0,00
VII. Kapital transferentziak	699.000,00
VIII. Finantza-aktiboak	0,00
XI. Finantza-pasiboak	0,00
Diru sarrerak, guztira	1.770.621,58

Iragarki honekin batera erakunde honetako lanpostu zerrenda argitaratzen da I. eranskinean, 6/1989 Legeak, euskal funtzio publikoarenak, 16. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Toki sektore publiko honetako aurrekontu orokorra behin betiko onartzen duen erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian. Horretarako, bi hilabete izango dira iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

I. eranskina

KARRERAKO FUNTZIONARIOAK

— Lanpostuaren izena: idazkari kontuhartzailea. Eskala: gaikuntza nazionalako funtzionarioak; azpieskala: idazkari-kontuhartzailea. Kopurua: 1. Administrazio egoera: aktiboan. Taldea: A 1; destino-osagarria: 26. Lanaldia: osoa. Hizkuntza eskakizuna: 3, derrigortasun datarik gabe. Titulazioa: Zuzenbideko, Politika eta Administrazio Zientzietako, Soziologiako, Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako, edo Ekonomia edo Aktuariatza eta Finantza Zientzietako lizentziaduna. Betetzeko era: lehiaketa. Lantokia: udaletxea.

— Lanpostuaren izena: administraria. Eskala: Administrazio Orokorra. Azpieskala: administrariak. Kopurua: 1. Administrazio egoera: aktiboan. Taldea: C 1; destino-osagarria: 22. Lanaldia: osoa. Hizkuntza eskakizuna: 2, derrigortasun datarik gabe. Titulazioa: goi mailako Batxilergoa edo titulazio tekniko baliokidea; Betetzeko era: lehiaketa. Lantokia: udaletxea.

— Lanpostuaren izena: administrari laguntzailea (zenbait eginkizun). Eskala: Administrazio Orokorra. Azpieskala: laguntzaileak. Kopurua: 1. Administrazio egoera: aktiboan. Taldea: C 2; destino-osagarria: 18. Lanaldia: osoa. Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun datarik gabe. Titulazioa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduduna edo baliokidea; Betetzeko era: lehiaketa. Lantokia: udaletxea.

— Lanpostuaren izena: liburutegiko arduraduna; Kopurua: 1. Administrazio egoera: aktiboan. Taldea: C 2; destino-osagarria: 18. Lanaldia: partziala (ehuneko 50). Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigortasun datarik gabe. Titulazioa: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduduna edo baliokidea; Betetzeko era: lehiaketa. Lantokia: liburutegia.

Santikurutze Kanpezu, 2015eko abenduaren 14a

Alkatea

IBERNALO BASTERRA TXASKO